

SKETCH CONTEMPORARY CULT & EXHIBITION.


Guggenheim Bilbao Museoaren  
jarduerek Euskal Autonomia  
Erkidegoko ekonomian  
izan duten eragina 2001an

## Sarrera

Dokumentu honetan laburbilduta aurkezten dira Guggenheim Bilbao Museoaren Fundazioak 2001. urtean garatutako jardueren ondorio nagusiak. KPMG Consulting-ek egindako azterketa honek museoaren jarduerak Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomian izan duen eragin ekonomikoaren estimazioa egitea du helburu. Azterketa egiteko 1998. urtean planteatutako eredua jarraitu da, baina honetan analisirako elementu berriak gehitu izan dira:

- Guggenheim Bilbao Museoaren 2001eko jarduerak Euskadiren ekonomian izan dituzten zeharkako efektuen hausnarketa.
- Aretoak alokatuz Museoan ekitaldi bereziak ospatzen dituzten enpresa eta instituzio desberdinek egiten duten zuzeneko gastuak eredian sartzea.
- Bisitarien gastuen profilen azterketa beren jatorriaren arabera eta aisialdian egindako gastuen kontzeptu berria gehituz. Horretarako, urteko epe desberdinetan, maiatza, abuztua eta irailean hain zuzen, inkesta bat egin zaie Museoan bisitatu duten 3.525 pertsonari. Inkestatik ateratako ondorioak estrapolatzeko, kontuan hartu dira Museoak jasotako jatorri geografikoaren datuak.
- Sektore bakoitzerako berariazko biderkatzaileen erabilera. Ez dagoenez gaurkotasunik EAEko turismoaren Input/Output tauletan, 1999ko euskal ekonomiari dagozkion taulak erabili dira. Hauetan, ordea, zerbitzuen sektorerako biderkatzaile bakarra erabili beharrean, berariazko biderkatzaile bat erabili da kontuan hartutako azpisektore bakoitzerako: txikizkako merkataritza, Ostalaritza, Garraioa, Jolas- eta kultura-jarduerak eta Gainerako enpresa-jarduerak.

## Eraginaren eredua



## Eraginaren Ereduaren emaitza nagusiak

Guggenheim Bilbao Museoak 2001. urtean zehar garatutako jardueren eragin ekonomikoaren azterketaren ondorio nagusiak hurrengoak dira:

KPMG Consulting-ek burututako inkestetatik ondorioztatzen da Museoako bisitarien %82a Bilbora Museoa ikusteko soilik etorri dela edo egonaldia luzatu duela Museoa bisitatzeko asmoz.

Museoaren jarduerak Euskadi mailan eragindako gastua guztira 24.912 milioi pezetakoa (149.724.135 euro) izan zen 2001. urtean. Honek esan nahi du bisitari bakoitzaren batez besteko gastua 26.787 pezetakoa (161 euro) izan dela. Gastu zuzenaren guztizko kopurua hurrengo kontzeptuen gehikuntzatik dator:

1. 20.744 milioi pezeta (124.673.951 euro) Museotik kanpo egindako gastuei dagozkie. Museoaren jarduera dela-eta onura gehien atera duten sektoreak hurrengoak izan dira:
  - Gastronomia: 6.684 milioi pezeta (40.171.649 euro) jatetxe, taberna eta kafetegietan.
  - Erosketak: 2.631 milioi pezeta (15.812.628 euro) denda eta saltokietan.
  - Ostalua: 8.325 milioi pezeta (50.034.258 euro) hotel, pentsio eta bestelako ostaluetan.
  - Garraioa: 1.832 milioi pezeta (11.010.542 euro) alokairu, gasolina, bidesari, txartel, eta abarretan.
  - Aisia: 1.272 milioi pezeta (7.644.874 euro) zinema, antzoki, beste museoetara egindako bisitetan, eta abar.
2. 1.493 milioi pezeta (8.973.111 euro) bisitarien Museoaren barrualdeko instalazioetan egindako gastuei dagozkie: sarrerak, gidaridun bisitaldiak, Denda-Liburudendan egindako erosketak eta kafetegi eta jatetxeko gastuak.
3. 2.542 milioi pezeta (15.277.728 euro) enpresa-gastu eta Banakako Kide eta Kide Korporatiboek egindako ekarpenei dagozkie, bai eta bestelako dirulaguntza, ekarpen eta diru-sarrera batzuei ere.
4. 133 milioi pezeta (799.346 euro) Museoan antolatutako diren ekitaldi bereziek eragindako gastuei dagozkie.

Zuzeneko eta zeharkako efektuak bakarrik kontuan hartuz, 2001. urtean zehar Guggenheim Bilbao Museoak bultzatutako gastu zuzenaren guztizko kopuruak 20.444 milioi pezetako (122.870.915 euro) diru-sorrera eragin du BPGd-ean Euskal Herriko Autonomi Elkartearen. Sortutako aberastasun honek, 3.212 lanposturen mantenuan lagundu du eta 3.273 milioi pezetako (19.671.126 euro) sarrera gehigarriak ekarri dizkie euskal ogasunei, BEZ, Sozietateen gaineko Zerga eta PFEZaren kontzeptuetan.

Bestalde, epe luzeagorako izaera duten eragindako efektuen diru-sorrera gehigarria 7.564 milioi pezetakoa (45.460.556 euro) izan da Euskadiko ekonomian, BPGd-rako gehikuntzan neurtuz gero. Sortutako aberastasun honek 1.203 lanposturen mantenturako ekarpena sortu du eta 1.211 milioi pezetako (7.278.257 euro) diru-sarrera gehigarriak ekarri dizkie euskal ogasunei BEZ, Sozietateen gaineko Zerga eta PFEZ bidezko diru-bilketa kontzeptuetan.

Laburbilduz, eta zuzeneko, zeharkako eta eragindako efektuak kontuan hartuz, Guggenheim Bilbao Museoak 2001. urtean izan duen jarduerak hurrengo eman du: 28.008 milioi pezetako (168.331.470 euro) aberastasun-sorkuntza BPGd-ean, 4.484 milioi pezetako (26.949.383 euro) diru-sarrera gehigarria euskal ogasunentzako eta 4.415 enpleguen mantenturako ekarpena.

Ondoren, 1997an zabaldu zenetik 2001eko abenduaren 31ra arte Guggenheim Bilbao Museoaren jarduerak Euskal Autonomi Erkidegoan izan duen Eragina ikus daiteke:

	1997	1998	1999	2000	2001 (3)	GUZTIRA
Eragina (1)						
Zuzeneko gastuak	6.750	31.680	33.743	31.930	24.912	129.015
BPGd sorrera	5.244	24.612	26.215	24.806	28.008	108.885
Enpleguak (2)	832	3.906	4.161	3.937	4.415	4.100
Diru-sarrerak Ogasunak	977	4.586	4.885	4.623	4.484	18.555

(1) Milioi pezetetan adierazitako datuak

(2) Enpleguen mantenturako ekarpena adierazten du, eta ez lanpostu berrien sorrera. Guztizko kopuruak urtean zehar Museoak mantentzen laguntzen dituen enpleguen batz bestekoa adierazten du.

(3) 2001eko eraginak zuzeneko eta zeharkako efektuak barne hartzen ditu, bai eta aurreko urteetan aztertu ez ziren eragindako efektuak ere.

DATU MAKROEKONOMIKOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA	1999-2000
1999ko BPGd (milioi pezeta)	6.060.383
2000ko BPGd (aurrerapena) (milioi pezeta)	6.565.884
2000ko ENPLEGUA (lanean dabilen biztanleria)	823.300
2000ko ZERGA ITUNDUEN BILKETA (BEZ, Sozietateen gaineko Zerga, PFEZ) (milioi pezeta)	1.037.757,7

Iturria: EUSTAT